

SORTUTAKOAK 7

| | |
|---|--|
| <p>Sortutakoak</p> <p>Sortutakoak da Gipuzkoan dantza-proiektu berriak sortzeko, garatzeko eta dibulгатzeko Dantzagunearen programa, eta bere baitan hartzen ditu diru-laguntza bat, egonaldi bat Dantzagunearen Errenteriako egoitza, dantza dibulгатzeko jarduerak, eta proiektuaren aurkezpen publikoa.</p> <p>Deialdia</p> <p>Dantzaguneak Sortutakoak programaren zazpigarren edizioaren deialdia iragartzen du. Zazpigarren ekitaldi honetan Dantzaguneak gai zehatz bat proposatzen du, pieza koreografiko bat osatzeko, eta sorkuntza-prozesu bat garatzeko.</p> <p>Horretarako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko dantza garaikidearen aitzindari eta erreferente den Jose Lainezen testu batetik abiatuta, koreografia bat osatu beharko da. Hasiera eta bukaera izango dituen sormen-prozesua egitea eskatzen da, emandako testutik abiatuta.</p> <p>Sortutakoaken zazpigarren edizioa integratu da Jose Lainez eta Concha Martinez koreografoen lana ezagutarazteko proiektu zabalago baten barruan. Donostia 2016rekin eta Huarte Zentroarekin elkarlanean, 2015 urtean zehar hainbat ekitaldi egingo dira.</p> <p>Sortutakoak 7n egonaldia egiteko aukeratutako proiektuek 2015eko ekainean Donostia 2016 Fundazioaren 2016 Gunean egingo den “Dantzatzeko ez diren koreografiak” erakusketan aurkeztuko dute beren lana.</p> <p>Jose Lainez eta Concha Martinez</p> <p>Jose Lainez eta Concha Martinez 16 urterekin joan ziren Donostiatik Amsterdamera, dantzari izateko ametsarekin. Eta lortu egin zuten. Bost urtez Het Nationale Balletean dantzatu zuten. Handik 1972an itzulita Donostian sortu zuten beren lehen dantza garaikide konpainia, Anexa, eta proposamen artistiko, apurtzaile eta probokatzaile berri bat egitea lortu zuten, garai hartako artearen abangoardian.</p> | <p>Sortutakoak</p> <p>Sortutakoak es el programa de Dantzagunea para crear, desarrollar y divulgar la creación de nuevos proyectos de danza. Incluye un periodo de residencia en la sede de Dantzagunea en Rentería, actividades para divulgar el trabajo de los creadores, y la presentación pública del proyecto.</p> <p>Convocatoria</p> <p>Dantzagunea anuncia la séptima edición del programa Sortutakoak. Para esta edición se propone un tema concreto para crear una pieza coreográfica, y para realizar un proceso creativo.</p> <p>En este contexto, los participantes de Sortutakoak 7 tendrán que componer una coreografía, partiendo de un texto de José Lainez, precursor y referente de la danza contemporánea en Gipuzkoa y Euskadi. Se pide realizar un proceso creativo con principio y final, partiendo del texto.</p> <p>De este modo, la séptima edición de Sortutakoak se integra en las actividades que Gipuzkoako Dantzagunea organizará en colaboración con Donostia 2016 y el Centro Huarte durante el 2015, para la puesta en valor y divulgación del trabajo de José Lainez y Concha Martínez.</p> <p>Los proyectos seleccionados para la realizar la residencia de Sortutakoak 7 presentarán su trabajo dentro de la exposición “Coreografías para no bailar” que se hará en junio del 2015 en el Espacio 2016 de la Fundación Donostia 2016 de San Sebastián.</p> <p>Jose Lainez y Concha Martínez</p> <p>Con 16 años, José Lainez y Concha Martínez se fueron de San Sebastián a Ámsterdam persiguiendo un sueño -ser bailarines- y lo lograron. Durante cinco años bailaron en la compañía del Het Nationale Ballet. A su regreso, en 1972, formaron la compañía Anexa en San Sebastián, su primer grupo de danza contemporánea, con el que consiguieron mostrar una nueva propuesta artística, rompedora y provocadora, a la vanguardia del momento.</p> |
|---|--|

1973an, Anexan egindako lanari esker, Bartzelonako agertokira iritsi ziren, eta Caspe antzokian hainbat hilabetetan egin zituzten emanaldiak. Segidan, Jose Lainez eta Concha Martinez Institut del Teatreko lantaldean sartu ziren, eta Jose Lainez Dantza Garaikideko Departamentuko koordinatzailea izan zen bolada batean. Handik urte batzuetara Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioko dantza-saileko zuzendariak izan ziren.

Han sortu zuten Yauzkari dantza garaikideko konpainia (1980). Zenbait sari irabazi zituzten talde horrekin eta Europan zehar ibili ziren, haien lan ziztatzaile, ausart, lotsagabe, probokatzzaile eta konprometituak aurkezten. Beren lanetako gai nagusia norbanakoa zen, eta helburua zen pertsona bakoitzaren alderdi onena arakatzea eta azaleratzea. Haien dantzak aparteko sorpresak ziren, eta ordu arte balletarekin lotura gutxi edo batere ez zuten musikak erabiltzen zituzten.

Jose Lainezek eta Concha Martinezek Iruñean aurkeztu zituzten beren lanak, Piejuntoapie konpainiarekin, eta beren azken lana, *Becket 5*, Iruñeko Gayarre antzokian aurkeztu zuten 2011n.

OINARRIAK

1.- Proiektuak

Jose Lainezen eta Concha Martinezen azken sorkuntza-proiektua da *Solas*. Lainezek zirriborro, testu eta marrazki bidez azalduta dauzka koreografiaren nondik norakoak, baina oraindik dantzatu gabeko koreografia da.

Sortutakoak 7ko partaideak Jose Lainezen ondorengo testua izango dute proposamenak egiteko oinarritzat:

Sormena da egitea, desagitea, erabakiak hartzea, zalantzak izatea, partekatzea, elkartzea, kohesionatzea, banatzea, itxoitea, komunikatzea, berriz egitea, urruntzea, gauzak tokiz aldatzea, ezabatzea, eta berriz hastea.

Testu horretatik abiatuta, partaideek edozein koreografia berri aurkeztu ahal izango dute.

En 1973, gracias a Anexa, irrumpen en la escena barcelonesa mostrando sus espectáculos en el teatro Caspe, que les programa durante meses. A continuación, José Lainez y Concha Martínez entran en el cuerpo docente del Institut del Teatre de Barcelona. José Lainez es, durante un tiempo, coordinador del Departament de Dansa Contemporània. Años más tarde, pasan a ser directores de la sección de danza del Conservatorio de Música Pablo Sarasate en Pamplona.

Una vez allí, crean el grupo de danza contemporánea Yauzkari (1980). Con este grupo ganaron varios premios y recorrieron España y parte de Europa, llevando al escenario unos trabajos incisivos, valientes, atrevidos, provocadores y comprometidos cuya mayor preocupación es el individuo con el fin de explorar y extraer lo mejor de cada uno. Sus danzas son extraordinarias sorpresas, acompañadas de una música hasta entonces poco o nada relacionada con el ballet.

José Lainez y Concha Martínez representaron sus últimas obras, en Pamplona, con la compañía de danza Piejuntoapie, estrenando su última creación, *Becket 5*, en 2011, en el Teatro Gayarre de Pamplona.

BASES

1.- Proyectos

Solas es el último trabajo de creación en el que trabajan José Lainez y Concha Martínez. Es una coreografía que aún no se ha bailado, y que Lainez ha descrito mediante bocetos, textos y dibujos.

El texto de José Lainez para realizar las propuestas para Sortutakoak 7 es el siguiente:

La creación es hacer, deshacer, tomar decisiones, dudar, compartir, juntar, cohesionar, despegar, esperar, comunicar, emocionar, rehacer de nuevo, distanciarse, cambiar cosas de sitio, borrar y vuelta a empezar.

Partiendo de este texto, los participantes pueden proponer cualquier coreografía. El creador elegirá el tipo de danza, estilo, música, escenografía, y demás

| | |
|---|---|
| <p>Sortzaileak erabakiko ditu dantza-mota, estiloa, musika, eszenografia, eta gainerako elementuak.</p> <p>Egonaldia egiteko hautatutako bi proiektuei utziko zaie <i>Solas</i> lanaren eta Jose Lainezen material gehiago sorkuntza garatzeko: testu osoa, Lainezen hausnarketak, zirriborroak eta irudiak. Edozein kasutan, sortzaileek askatasun osoa izango dute haiek erabiltzeko edo ez.</p> <p>2.- Partaideak</p> <p>Sortutakoak 7n parte-har dezakete:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mugimendu-arten eremuan egindako sorkuntza eta ikerkuntza-proiektuek • Konpainia egonkorrek • Banakako proiektuek • Proiektu zehatz baterako sortutako taldeek <p>3.- Epeak</p> <p>Eskaerak bidaltzeko epea: 2015eko otsailaren 17tik martxoaren 17ra.</p> <p>Epaimahaiaren erabakia: dantzaren sektoreko profesionalen osatutako epaimahai batek bi proiektu aukeratuko ditu. Hautatutako proiektuen izenak 2015eko apirilaren 5ean jakinaraziko dira.</p> <p>Egonaldiak egiteko epea: aukeratutako proiektuak 2015eko apirila eta ekaina bitartean egingo dira.</p> <p>Proiektuen emanaldia: 2015eko ekainaren amaieran, Donostia 2016 Fundazioaren 2016 Gunean izango da, “Ez dantzatzeko koreografiak” erakusketaren programaren barruan.</p> <p>4- Egonaldia</p> <p>Egonaldia egiteko hautatutako proiektuek lehentasuna izango dute aretoak eskatzeko. Aukeratutako proiektuen arduradunek idatziz helaraziko diete lanerako programazioa Dantzaguneko arduradunei. Egutegia, ordutegia, eta gainerako beharrak Dantzaguneko arduradunekin adostuko dituzte.</p> <p>Egonaldiak Dantzagunearen egoitzan (Errenteriako Udalaren Niessen eraikinean) egingo dira. Egonaldirako Dantzaguneko ikus-entzunezko</p> | <p>elementos.</p> <p>A los proyectos elegidos para la residencia se les facilitará más material de José Lainez y de <i>Solas</i>: el texto completo, sus reflexiones sobre la danza, bocetos y dibujos. En cualquier caso, los creadores tendrán la libertad de utilizarlos o no.</p> <p>2- Participantes</p> <p>Pueden participar en Sortutakoak 7:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proyectos de creación e investigación en las artes del movimiento • Compañías estables • Proyectos individuales • Grupos creados para un proyecto concreto <p>3- Plazos</p> <p>Plazo para presentar las solicitudes: del 17 de febrero al 17 de marzo del 2015.</p> <p>Fallo del jurado: una mesa de selección compuesta por profesionales del sector de la danza, seleccionará dos proyectos para el 5 de abril del 2015.</p> <p>Periodo de las residencias: los proyectos elegidos se desarrollarán entre abril y junio del 2015.</p> <p>Presentación de los proyectos: a finales de junio del 2015, en el Espacio 2016 de la Fundación Donostia 2016 de San Sebastián, dentro de la exposición “Coreografías para no bailar”.</p> <p>4- Residencia</p> <p>Los proyectos elegidos para hacer la residencia tendrán prioridad para pedir salas. El responsable del proyecto informará al equipo de gestión de Dantzagunea por escrito el plan de trabajo de la residencia, tras la elección. Se acordarán el calendario, horario, y demás necesidades con los responsables de Dantzagunea.</p> <p>Las residencias se realizarán en la sede de Dantzagunea (edificio Niessen del Ayuntamiento de</p> |
|---|---|

| | |
|---|---|
| <p>materiala izango dute eskura egoiliarrek, eta proiektuan adierazi beharko dute horien erabilera. Horrez gain, Dantzaguneko kudeaketa-taldearen aholkularitza teknikoak izango dute uneoro.</p> <p>Proiektu irabazleen egonaldiak gutxienez bi asteko eta gehienez hilabete bateko iraupena izango dute, 2015eko apirila eta ekaina bitartean.</p> <p>5- Sormen-prozesuaren dokumentazioa eta aholkularitza</p> <p>Dantzagunearen dokumentazio eta formazio jardueren barruan, egonaldiko proiektuen sorkuntza-proiektua dokumentatuko da.</p> <p>Proiektua dokumentatzeko formazioa eta aholkularitza emango ditu Bertha Bermudez dantzari, koreografo eta ikertzaileak.</p> <p>Bertha Bermudez da Jose Lainez eta Concha Martinezen ondarea ikertzeko eta balioan jartzeko proiektuaren eduki-burua. Dantzari profesional gisa ibilbide luzea egin ondoren, gaur egun sorkuntza-prozesuen dokumentazioan espezializatzen ari da ikertzaile gisa, gaiaren inguruko doktore-tesia egiten.</p> <p>Proiektuan proposatutako koreografiarekin batera, 2015eko ekainean egingo den “Ez dantzatzeko koreografiak” erakusketan erakutsiko da egonaldian eta sormen-prozesuan jasotako dokumentazio-lanaren emaitza, liburuxka batean. Prozesuko materiala jasotzea proiektuaren egileen ardura izango da, eta horretarako Bertha Bermudezen aholkularitza izango dute.</p> <p>6.- Diru-laguntza</p> <p>Sortutakoak 7 programan Dantzagunean egonaldia egiteko aukeratutako proiektu bakoitzak 1.000€ko diru-kopurua jasoko du.</p> <p>Dantzaguneari eskaintzen du artistak proposatutako kanpoko aholkulari artistiko bat sartzea proiektuan. Horretarako, 400€ko diru-kopurua jasoko du.</p> <p>7.- Proiektuak</p> <p>Proiektu bakoitza aurkezteko proiektu xehatu bat aurkeztuko da, ondorengo atalak zehatz azalduta:</p> | <p>Errenteria).</p> <p>Los residentes tendrán el material audiovisual de Dantzagunea a su disposición, y tendrán que especificar su uso en la propuesta del proyecto. También, tendrán el asesoramiento del equipo de gestión de Dantzagunea.</p> <p>Las residencias de los proyectos ganadores durarán entre dos semanas y un mes, durante abril y junio del 2015.</p> <p>5- Documentación del proceso creativo y asesoría</p> <p>Dentro del apartado formativo y documental de Dantzagunea, se documentará el proyecto de residencia.</p> <p>La asesora y formadora del proceso de documentación será la bailarina, coreógrafa e investigadora Bertha Bermúdez.</p> <p>Bertha Bermúdez es la responsable del contenido del proyecto de investigación y puesta en valor del trabajo de José Lainez y Concha Martínez. Tras una larga carrera como bailarina profesional, es especialista en la documentación de procesos de creación, campo en el que actualmente realiza su tesis doctoral.</p> <p>El resultado del material recogido durante la residencia y el proceso creativo se mostrará en la exposición “Coreografías para no bailar” que se hará en junio de año 2015 en Donostia. Se realizará un folleto, para el cual los responsables del proyecto deberán entregar material. Para todo el proceso tendrán la asesoría de Bertha Bermúdez.</p> <p>6.- Ayuda económica</p> <p>La residencia se acompaña de una dotación económica de 1.000€ para cada uno de los dos proyectos seleccionados.</p> <p>Dantzagunea ofrece la posibilidad de incluir en el proyecto a un asesor artístico externo propuesto por el artista, teniendo para ello una dotación económica de 400€</p> <p>7.- Proyectos</p> |
|---|---|

- Azalpen artistikoa
- Teknika eta produkzio beharrak
- Kanpo-aholkulariaren izena
- Egonaldiko faseen plangintza
- Proiektuko partaideen CVa.

Sortutakoak 7n parte-hartzeko, deialdi honi atxikitako formularioa bete behar da eta ondorengo helbide elektronikora bidali:
dantzagunea@gipuzkoa.eus

Dantzaguneak, Eresbil Euskal Musikaren Artxiboarekin dantza dokumentatzeko eta ikertzeko materiala eta baliabideak sortzeko duen akordioaren arabera, Sortutakoak 7 edizioko proiektu guztien kopia bat bidaliko du Eresbilera. Beren lanak Eresbilera bidaltzea nahi ez duten proiektuen egileek beren proposamenean adierazi beharko dute hori. Horrek ez du eraginik izango epaimahaiaren erabakian.

8.- Sortzaileen lanaren dibulgazioa

Artistak bere lan-prozesua jardunaldi ireki batean eskola-haurrei erakusteko konpromisoa hartzen du; edo, Dantzagunearekin adostuta, bestelako jarduera dibulgatzaile bat egitekoa.

Artistak, bere lana hedatzeko, Dantzagunea eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Errenteriako Udala, eta Donostia 2016 Fundazioa kolaboratzaile gisa aipatzeko konpromisoa hartzen du.

9.- Koreografiaren emanaldia

Hautatutako proiektuak 2015eko ekainean egingo den “Dantzatzeko ez diren koreografiak” erakusketaren programazioaren barruan aurkeztuko dira.

Data zehaztuko da sortzaileen eta antolatzaileen artean.

Para cada proyecto se deberá presentar un documento detallado con:

- Planteamiento artístico
- Necesidades técnicas
- Nombre del asesor artístico externo
- Planificación de fases de la residencia
- CV de los participantes en el proyecto

Para presentarse a Sortutakoak 7 hay que rellenar el formulario adjunto a esta convocatoria y enviarlo a: dantzagunea@gipuzkoa.eus

Dantzagunea, de acuerdo con el acuerdo de documentación e investigación que tiene con Eresbil Euskal Musikaren Artxiboa, enviará una copia de cada proyecto a Eresbil. Los autores de los proyectos que no quieran que se envíe lo tendrán que especificar en su propuesta. Esto no influirá en el fallo del jurado.

8.- Divulgación del trabajo de los creadores

El artista se compromete a abrir su proceso de trabajo en una jornada de puertas abiertas, bien sea a escolares, o bien con otra acción divulgativa en acuerdo con Dantzagunea.

El artista se compromete a mencionar a Dantzagunea y, por tanto, al Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Ayuntamiento de Errenteria y a la Fundación Donostia 2016 como colaboradores de su trabajo en la difusión que haga de su obra.

9.- Presentación de los proyectos

Los proyectos seleccionados se presentarán en público dentro de la programación de la exposición “Coreografías para no bailar” que se hará en junio de 2015.

La fecha se acordará entre los creadores y organizadores.